

Carta abierta al editor

Editorearentzako gutun irekia



Ainhoa Iceta

A. Iceta Lizarraga

Presidenta de la SVN.
Servicio de Pediatría. Hospital Universitario
de Navarra

En el editorial de *Boletín* del año anterior reflejaba la preocupación que tenemos los pediatras sobre la pérdida de bienestar emocional de nuestros menores, siendo el aumento de las agresiones sexuales en nuestra región una de las razones. Es por ese motivo y porque tenemos la buena noticia de la puesta en marcha de las Barnahus de Navarra y Euskadi, por lo que he pensado en dedicar unas líneas a este tema.

Las agresiones sexuales contra menores continúan siendo un grave problema tanto en Euskadi como en Navarra. En Euskadi, un análisis de 88 sentencias dictadas entre 2019 y 2024 revela la existencia de 108 víctimas menores, de las cuales un 92,6% eran niñas, y casi nueve de cada diez tenían menos de 15 años cuando sufrieron los abusos. Todos los agresores identificados en estos casos eran hombres. Además, la relación entre víctima y agresor muestra una tendencia variable según los años: mientras que en 2019 predominaban los abusadores vinculados al ámbito educativo o de ocio (monitores y educadores), en 2023 la mayoría pertenecían al entorno cercano de la víctima, como familiares o parejas de la madre. La tendencia general también resulta inquietante, ya que en 2024 las agresiones sexuales denunciadas en Euskadi aumentaron un 29% respecto al año anterior, lo que evidencia una problemática en expansión o quizá sea debido a un incremento en la denuncia de casos antes silenciados.

En Navarra, aunque los datos públicos son menos detallados, también se observa una realidad alarmante. Entre enero y septiembre de 2025 se han registrado 223 delitos de violencia sexual, la mayoría presentadas por mujeres jóvenes. En el caso de menores especialmente vulnerables, destaca que desde 2019 un total de 49 menores tutelados denunciaron abusos sexuales, lo que obliga a una

Iazko aldizkariaren editorialean, pediatrok adingabeen ongizate emozionalaren galerari buruz dugun kezka islatu nuen, eta galera horren arrazoietakoa bat gure eskualdeko sexu-erasoen gorakada dela adierazi. Hori kontuan hartuta, eta Nafarroako eta Euskadiko Barnahus etxeak martxan jarri izanaren berri ona dugulako, gai horri buruz lerro batzuk idaztea pentsatu dut.

Adingabeen aurkako sexu-erasoak arazo larria dira oraindik ere Euskadin eta Nafarroan. Euskadin, 2019tik 2024ra bitartean emandako 88 epairen arabera, 108 biktimia adingabe egon dira; horietatik, % 92,6 neskak ziren, eta hamarretik ia bederatzik 15 urte baino gutxiago zituzten, abusuak jasan zituztenean. Kasu horietan identifikatutako erasotzaile guztiak gizonezkoak ziren. Gainera, biktimen eta erasotzaileen arteko harremana aldatu egin da urte horietan: 2019an, abusatzaileak hezkuntza- edo aisialdi-eremuari lotuta zeuden nagusiki (monitoreak eta hezitzaileak); 2023an, berriz, gehienak biktimaren hurbileko ingurukoak ziren, senitartekoak edo amaren bikotekideak, adibidez. Joera orokorra ere kezagarria da: 2024an Euskadin salatutako sexu-erasoak % 29 gehiago izan ziren aurreko urtean baino, eta horrek agerian uzten du arazoa zabaltzen ari dela, edo, agian, lehen isilarazten ziren kasuak ere salatu egiten direla orain.

Nafarroan ere kezagarria da errealitatea, nahiz eta datu publikoak ez diren hain zehatzak. 2025eko urtariletik irailera bitartean, sexu-indarkeriak 223 delitu erregistratu dira, gehienak emakume gazteen kontrakoak. Bereziki zaurgarriak diren adingabeen kasuan, nabarmentzekoa da 2019az geroztik tutoretzapeko 49 adingabek salatu dituztela sexu-abusuak; horrenbestez, ezinbestekoa da Foru Komunitateko babes instituzionaleko sistemen arduradunek gogoeta egitea.

Sexu-erasoen alorrean, kezkatzeko modukoa da erasoak jasan duten pertsonen nozitzen duten bigarren mailako biktimizazioa, eta prozesu judizialaren moteltasuna da horren funtsezko



reflexión importante en los sistemas de protección institucional de la Comunidad Foral.

Un elemento preocupante en relación con las agresiones sexuales, es la victimización secundaria que sufren las personas agredidas, siendo una causa fundamental la lentitud del proceso judicial. Concretamente en Euskadi, más del 60% de los procesos tardaron más de dos años en resolverse, hecho que obliga a las víctimas a revivir repetidamente lo ocurrido y que entorpece su reparación emocional.

Tanto en Navarra como en Euskadi, los especialistas coinciden en que la mayor parte de los abusos sexuales contra menores no se denuncia, lo que convierte las cifras oficiales en solo la punta de un iceberg mucho mayor. La combinación de baja denuncia, largas demoras judiciales y un perfil de agresores mayoritariamente del entorno cercano hace que la protección de la infancia sea un desafío urgente para las instituciones.

Ante esta situación, Euskadi y Navarra han apostado por el **modelo Barnahus**, sistema en el que hemos trabajado de forma coordinada y multidisciplinar desde diferentes departamentos, con la ayuda de la organización *Save The Children*. El modelo Barnahus ofrece atención integral a niños, niñas y adolescentes víctimas de violencia sexual. Está inspirado en la experiencia islandesa de la *Casa de la Infancia*, que es el significado de Barnahus en islandés. Este modelo se basa en un principio esencial: la protección del menor debe prevalecer sobre cualquier otra consideración, para evitar su revictimización y garantizando un

kausetako bat. Euskadin, hain zuen, prozesuen % 60 baino gehiagotan bi urtetik gora behar izan ziren epaia lortzeko; hori dela eta, biktimek behin eta berriz bizi behar izaten dute gertatutakoa, eta horrek oztopatu egiten die kalte emozionala konpontzea.

Bai Nafarroan bai Euskadin, espezialistak bat datoz: adingabeen aurkako sexu-abusurik gehienak ez dira salatzen, eta, beraz, askoz iceberg handiago baten muturra baino ez dira zifra ofizialak. Salaketa-kopuru txikia, atzerapen judizial luzeak eta erasotzaileen profila —gehiak adingabeen ingurukoak dira— aintzat hartuta, haurren babesa premiazko erronka da erakundeentzat.

Egoera horren aurrean, Euskadik eta Nafarroak **Barnahus ereduaren** alde egin dute. Sistema horretan egin dugu lan, hainbat sailetatik koordinatuta eta diziplina anitzeko ikuspegitik, *Save The Children* erakundearen laguntzarekin. Barnahus ereduak arreta integrala ematen die sexu-indarkeriaren biktime diren haur eta nerabeei. Islandiako Haurren Etxearen esperientzian oinarrituta dago; horixe da Barnahus hitzaren esanahia islandieraz. Eredu horrek funtsezko printzipio bat du ardatz: adingabearen babesa beste edozein kontsiderazioren gainetik jarri behar da, berritoki biktimizatzea saihesteko eta laguntza emozional, sanitario, sozial eta judiziala eremu seguru bakarretik jasotzen duela bermatzeko.

Barnahus Euskadik egin ditu lehen urratsak; hain zuzen, duela gutxi (azaroan), zentro pilotua ireki zen Araban. Ingurune abegikor gisa sortu zen, haurren komunikazioa aintzat hartuta, eta prozesu judizial eta asistentzialaren ondoriozko estresa txikitzeko diseinatu.

acompañamiento emocional, sanitario, social y judicial desde un único espacio seguro.

Barnahus Euskadi ha dado sus primeros pasos con la reciente apertura en noviembre del centro piloto en Araba, concebido como un entorno acogedor, adaptado a la comunicación infantil y diseñado para reducir el estrés derivado del proceso judicial y asistencial.

Navarra, por su parte, ha desarrollado su propio proceso de implantación del modelo Barnahus, incorporando los estándares europeos que recomiendan una atención integral y centralizada para los menores y dirigida también a adultos con discapacidad psíquica víctimas de violencia. Su apertura en Pamplona se estima para enero de 2026.

En ambos espacios Barnahus se plantea reunir profesionales de psicología, trabajo social, medicina, forenses, policía y fiscalía, coordinados para que el menor solo tenga que relatar su experiencia una vez, en un ambiente protegido y libre de presiones. El modelo permite que la declaración realizada en la sala de entrevista tenga validez judicial, evitando el tránsito por juzgados y dependencias policiales.

Tanto Euskadi como Navarra comparten los mismos objetivos: mejorar la detección del abuso, reducir el daño emocional a las víctimas, acelerar los tiempos de respuesta institucional y asegurar que todos los agentes implicados trabajen de forma sincronizada. La creación de estos espacios está ideada para mejorar el modo de funcionamiento previo, en el que los menores debían desplazarse por distintos servicios, repitiendo su relato y reviviendo situaciones dolorosas.

Con todo lo anterior, desde la SVNPF felicitamos a quienes han contribuido en su creación y creemos que esta apuesta refleja un cambio profundo en la manera de abordar la violencia sexual contra nuestros menores. Barnahus representa un enfoque transformador: un sistema que escucha, protege y acompaña.

¡Buena suerte!

Bestalde, Nafarroak bere bidea egin du, Barnahus eredua ezartzeko. Adingabeentzako arreta integral eta zentralizatua gomendatzen duten Europako estandarrak txertatu ditu, eta indarkeriaren biktima diren desgaitasun psikikodun helduak ere artatzen ditu. Iruñean, 2026ko urtarrilean irekitzea aurreikusten da.

Bi Barnhaus gune horietan, psikologiako, gizarte-laneko, medikuntzako, auzitegiko medikuntzako, poliziako eta fiskaltzako profesionalak bildu eta koordinatuko dira, adingabeek beren esperientzia behin bakarrik kontatu dezaten, babestuta eta presiorik gabeko giro batean. Ereduari esker, elkarrizketa-aretoan egindako deklarazioek balio judiziala izango dute, eta adingabeek ez dute zertan epaitegietara eta polizia-bulegoetara joan.

Euskadik eta Nafarroak helburu berberak dituzte: abusuen detekzioa hobetzea, biktimen kalte emozionala txikitzea, erakundeen erantzun-denborak murriztea eta inplikaturako eragile guztiek sinkronizatuta lan egiten dutela ziurtatzea. Gune horiek aurreko funtzionamendua hobetzeko pentsatuta daude; izan ere, adingabeek hainbat zerbitzura joan behar izaten zuten, eta gertatutakoa behin eta berriz kontatu, egoera mingarriak behin eta berriro gogora ekarri.

Horregatik guztiagatik, EHPetiko zoriondu egin nahi ditugu gune horiek sortzen lagundu dutenak, eta uste dugu apustu horrek aldaketa sakona islatzen duela gure adingabeen aurkako sexu-indarkeriari heltzeko moduan. Barnahusek ikuspegi eraldatzailea dakar berekin: entzuten, babesten eta laguntzen duen sistema bat.

Ongi izan!